



Laura Ortigosa sopranoa eta Miroslaw Gorski klabezin jolearen kontzertuarekin ederki gozatu zuten herritarrek.

San Pedro Parrokiko 440. urteurrena dela eta, kontzertua burutu zen lehengo larunbatean Brigitarren komentuan. Ekitaldi berezia izan zen herritarrek entzun zutena. Izan ere, Laura Ortigosa sopranoa eta Miroslaw Gorski klabezin joleak XVII. eta XVIII. mendeko musikari handien lanak eskaini baitzituzten parrokian, hala nola, Vivaldiren *Cantata Profana* edo Pergolesiren *Se tu m'ami*. •

## Iraganera begirada


■ XVII eta XVIII. mendeko doinuak entzungai izan ziren Ama Brigitarren komentuan

### Guatemalako eskolei laguntzen

Lasarte-Oriako parrokiak Misio taldeek urtero antolatzen duten afari solidarioa larunbata gauean burutu zen Zumaburuko Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko lokaletan.

Herritar ugari bildu zen bertan. Giro onean afaldu eta proiekrua zaldu ostean, diru bilketa egin zen.

Afarian lortu zen diruarekin, eskolarako materiala eta ordenagailuak erosiko dira eta Guatemalako *Fe y Alegria* eskoletara bideratuko da, hango eskoletan banatzeko. •



Jade bikotea,  
Kubako  
kantautoreak,  
ostiraletan  
Zabaleta  
auzoan /4

GIZARTEA/ 2

Malgutasun neurriak sei hilabetez luzatuko ditu Michelinek


GIZARTEA/ 4

Bigarren eskuko azoka arrakastatsua ospatu zen atzo Dorre Parkean

GIZARTEA/ 8

Egunkariaren aldeko elkarretaratzea gaur 19:30ean Sagardotegi kalean

ADURIZ DE LASARTE S.A



Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



ERREKATXO  
JATETXEA

JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO  
MENU BEREZIAK

Oria Etorbidea 4  
Tel.: 943 365557  
Lasarte-Oria

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

# Michelin-Lasarte enpresak malgutasun neurriak sei hilabetez luzatuko ditu

Michelin enpresak langile bakoitza gehienez 70 egunez eduki ahal izango du jardueratik kanpo 2010. urte erdi aldera arte. Hau izan zen abenduaren 4an, Enpresa Batzordeak eta Michelin enpresak onartutako akordioa. CC.OO, UGT eta CSI neurriari baiezkotza eman zioten 11 bozkaikin, LAB eta ELA aldiz, 9 botoekin kontrari azaldu zirenean eta ESK abstentzioaren aldeko bidea hartu zuen 2 botoekin. Era honetara, indarrean zeuden malgutasun neurriak beste 6 hilabetez luzatzen dituzte.

Michelingo enpresak sei hilabetez luzatuko ditu malgutasun laboraleko neurriak.

Enpresak abenduaren 4an enpresa batzordeari malgutasun neurria 2010. urte osorako luzatzea eskatu zion, hurrengo urterako ekoizpen aurreikuspen txarren aurrean.

Enpresaren aburuz, aktibitateak ez du aurrera egiten, eta, gainera, ez dute uste epe motzean hori lortuko denik. Urte honetan gainera, ekoizpenean jaitsiera eman daitekeela ere argudiatu zuten.

CC.OO, UGT, ESK eta independenteak diren CSI enpresari malgutasun neurriak soilik urteko lehen erdian



Lehenengo enplegu espediente erregulazioak agertu zirean, neurrien kontrako manifestazioa egin zuten langileek.

mantentzea proposatu zioten, zuzendaritzak proposamena onartu eta bozketari eman zioten pasoa.

CC.OO, UGT eta CSI sindikatuen aldeko bozkekin neurria aurrera atera zen, LAB eta ELAK ezezkotza eman zuten eta ESK abstentitu zen.

Era berean, akordio mantentzen den bitartean, enpresak lanpostuak mantentzeko eta enplegua erregulatzeko espediente berriak ez aurkezteko konpromezua hartu zuen.

## Langileen egoera

Azken erabakiaren ondorioz, langile bakoitzak 70 eguneko jarduera eza izango du hurrengo sei hilabeteetan, momentuan dagoen planaren arabera.

Galdutako lan jarduera horiek hurrengo 5 urteetan berreskuratu beharko dituzte langileek.

Honetaz gain, langileak lantokira ez doan egun bakoitzeko, dagokion diru kopuruaren %50 kobratuko du.

Hala ere, enpresak segurantzia sozialeko kotizazioan %100a jartzen jarraituko du, langileei bere oinarri kotizagarrian ez eragiteko.

Kobratzeko duten gainerako %50a, egunak erreperatzean jasoko dute langileek.

## LAB sindikatua salatzen

Jon Martin, LABeko ordezkariren hitzetan, bi arrazoi nagusi daude sindikatuaq neurri honen aurka egin dezaten.

Batetik, planaren neurri baldintzak onartu zirenean ez zirela LAB-en eskakizunak negoziatu. Eta bestetik, puntu garrantzitsuetan jo dutena, Michelin enpresak ez duela datuekin azaldu eskatu duen behar hori.

Ostegunean, malgutasun plana sinatu zelaren bigarren urteurrena bete zen eta LAB sindikatutik salatzen dute enpresak ez duela inolako balantze ekonomikorik aurkeztu harez geroztik, ezta aurreikuspeni buruzko ezer adierazi ere. Era honetara, enpresari, informazio printzipala ez ematea egosten diote.

Honetaz gain, Martinen hitzetan, malgutasun planaren luzapena onartu eta 24 ordutara enpresa batzordea jo eta pentsio plana eskaini ziren enpresak gehien kobratzen duten langileentzat.

Eta, azkenik, LAB sindikatutik salatu nahi dute, berriro ere, Lasarteko enpresa honek beste 30 langile Gasteizko egoitzara bideratuko dituela hiru urtez.

Sindikatu abertzaletik ezin dute ulertu soldata altuenak ordaintzeko dirua egotea, eta ez, ordea, langileei ordaintzeko. •



Daniele Marele, frentez, hurbildu ziren herritar batzuei erakusketa azaltzen.

## Adierazpen konposatuak erakusketa ireki zen kulturetxean

Larunbata arratsaldean, Nicu Barb eta Daniele Marele margolari errumaniarren *Adierazpen konposatuak* erakusketa ireki zen larunbatean Kultur etxeko kafetegian.

Alemanian zehar ibili den erakusketa honetan 20 margolarik daude ikusgai.

"Abstrakzioa eta figurazioaren artean daude gure lanak. Kolore alaiak erabiliz, sentimenduak adierazi nahi izan ditugu. Eta teknika oso garrantzitsua da guretzat,"

azaldu zuten bi margolariak asteartean eman zuten prentsaurrekoan.

## Aitaren pausoak jarraikiz

Nicu Barben aita, Nicolae Barb margolaria 1988an etorri zen Lasarte-Oriara lehenengoz, Ana Urchueguia alkatearen eta Rafael Domecqren eskuz.

Ordutik bere heriotzara arte, Lasarte-Oriarekin lotura handia izan du. Rafael Domecqren sortutako margo-

lari elkarteko kide bezala, hainbat erakusketetan bere lanak ikusgai egon ziren kulturetxean eta bere bi lan daude, bata Udaltzatza aretoan eta bestea Kultur etxean.

Orain, Nicu semearen eta Danielen txanda iritsi da. Oskar Barreraren eskutik eta Lasarte-Oriako udalaren laguntzaz, *Adierazpen konposatuak* erakusketa hurrengo larunbatean arte, astean zehar 18:00etatik 20:00etara, ikusteko aukera egongo da Kulturetxean. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Txapelketa Nagusiko finala aztergai

■ Ostegunean Arrieskalletan elkartuko dira bertsozaleak BECeko finala komentatzeko ■ Bertsozaleek txapelketan egindako lana aztertuko dute

Barakaldoko BEC leporaino bete zen atzo Txapelketa Nagusiko finala eta Maialen Lujanbio bertsozalearen garai-pena ikusteko. Bertsozaleek asko gozatu zuten egun osoan zehar, eta jakina da finalak arrastoa utziko duela ondorengo egun eta asteetan. Esaterako Lasarte-Oriako bertsozaleak ostegunean dute hitzordua arratsaldeko 20:00etan finalaz hitz egiteko Arrieskalletan elkartean egongo den afari solasaldian. Finaleko saioen irudiak emango dira eta gero bakoitzak ikusi eta sentitutakoa komentatzeko eta finaleko beste hainbat gorabehera jorratzeko aukera izango dute.



Afarian zehar eta afalostean emango dira finaleko bertsoaldi interesgarrienak, ikusi eta komentatzeko.

JON ALTUNA

Ttakan elkarteko Bertso Eskolak antolatu ditu arteen lehen aldiz bertso tertulia hauek. Lehenengo, Xirimiri elkartean egin zen azaroaren 10ean eta besteak beste Unai Muñoa eta Amaia Agirrek lehenengo fasean egindako lana aztertu zen, kanporaketetako beste zenbait saio aipagarriekin batera, besteak beste Maialen Lujanbioaren saio eta bertso sorta bikaina, edota Xabier Silveirak Zarautzen kartzelako lanean egindako potoak.

Bigarren solasaldia abenduaren 17an egin zen Arries-

kalleta elkartean. Solaskide programan ari direnek prestatu zuten afarian, plater eta plater artean, finalerdietako saio interesgarrienak ikusi eta aztertu ziren: Koplatan egindako zenbait bertsoaldi, Unai Iturriagak Iruñean egindako saio ona eta Donostian belodromoan burutu zen finalerdiko zenbait gorabehera ere bai. Hausnarketarako eta eztabaidarako gai eta kezka asko atera ziren bigarren tertulia honetan ere.

Hamabost lagun izan ziren lehen bertso solasaldian Xirimiri eta 30 lagun bigarren Arrieskalletan. Bertsozaleak gustura izan dira bi tertulietan, bertsozaleen jardunari eta txapelketari buruz hainbat gauza berri eta zirrikitu landu dira eta.

Hirugarren eta azken tertulia, ostegunean abenduaren 17an burutuko da Arrieskalleta elkartean, final nagusiko gorabeherak komentatzeko. Finaleko bertsoaldi interesga-

rirenak eskainiko dira banaka banaka eta ondoren bertsozaleek euren kezka eta galderak egiteko aukera izango dute. Ttakan elkarteko Bertso Eskolako kideak izango dira Arrieskalletan euren hausnarketak plazaratzeko.

Osteguneko afari-solasaldia joan nahi dutenek Ttakan Kultur Elkartera deitu beharko dute izena emateko. Esan bezala afaria arratsaldeko 20:00etan hasiko da Arrieskalleta elkartean. •

GABONETAKO ARGIAK

## Lasarte-Oriako errotondak argituko ditu Udalak

Energia aurreztu eta egoera ekonomikoari aurre egiteko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak aurten Donostia Etorbide eta Kale Nagusiko errotondetan jarriko ditu Gabonetako argiak.

Beraz, herriko kaleak eta Udaletxea bera Gabonetako argirik ez dute izango.

Era berean, abenduaren 19an piztu eta Kale Nagusia urtarrilaren 7a arte argitu eta alaituko dutela jakin arazi dute Udaletik, baita ordutegi murrizketa egongo dela ere. Arratsaldeko 17:00 edo 17:30etatik gauerdia egongo dira piztuak Gabonetako argiak. •

IRADOKIZUNAK

## Buruntzaldeko postontzi berdeak erabili

Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Departamentuak gogorarazi nahi du, herritarrek Udalarri egin nahi dioten edozein iradokizun, iritzi, erreklamazio edo ideia helarazteko, Buruntzaldeko postontzi berdeak eskura dauzkatala. 5 postontziak, Udaletxean, Zentro Zibikoan, Jubilatuen Elkartean, Kiroldegian eta Kulturetxean daude herritarren eskura.

Era berean, herritarrek [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) webgunean postontzi birtuala ere erabili dezakete ohartarazten du. •

## Gabon giroa Musika Eskolako kontzertuan

Gabonak hurbil ditugu, eta urtero legez, Lasarte Oriako Musika Eskolak hilaren 16an Gabonetako kontzertua eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean.

Arratsaldeko 19:00tatik aurrera, trikitixa, pandero edo gitarra doinuak entzuteko aukera egongo da kultur etxeko aretoan.

Nahiz eta Gabonetako abestiek, hala nola, *Gaueko Izar*, *Birjina Maite* edo *Oi Betleen* garrantzia handia izango dute kontzertuan, mota guztietako abestiak jo eta kantatuko dituzte eskolako ikasleek.

Eguberriei hasiera emateko era paregabea dugu kontzertu hau. •



Instrumentu ezberdinen doinuaz Gabonetako giroa ekarriko dute ikasleek.

## Ohorezko Goya Antonio Mercerori

Nork ez ditu, esate baterako, *Crónicas de un pueblo*, *Verano azul* edo *Farmacia de guardia* telesailak eta *La Cabina* edo *Planta 4ª* filmak gogoan? Hauek guztiak, dudarik gabe Antonio Mercerori lasarteoriarrarekin lotzen ditugun lanetako batzuk dira.

Izan ere, eremu guztietan onspena lortu duen zuzendari, errealizadore eta gidoilaria dugu Antonio Mercerori lasarteoriarratarrak. Horregatik, otsailaren 14ean, Ohorezko Goya emango diotela adierazi berri du Estatuko Arte eta Zientzia Zinematografikoaren akademiak.

"Ibilbide zinematografiko ikaragarria egin du Mercerori. Eremu oso ezberdinetan lortu du arrakasta. Duda izpirik gabe Ohorezko Goya merezi du" aipatu dute

50 urte dira ia Mercerori



73 urterekin jasoko du Antonio Mercerori lasarteoriarrak Ohorezko Goya

zuzendari lanetan hasi zela. zuzendari guztien hastapenetan bezala laburmetraiak izan ziren lehendabizi. Gainera, bere lehenengo lanak, *Lección de artek* 1962ko Donostiako Zinemaldian, Urrezko Maskorra eta

Kantauriko Perla sariak eskuratu zituen.

Sari hauetaz gain, besteak beste, 1973an, *La cabina* filmean Emmy-a eskuratu zuen eta 2003an, bere ibilbide saritu zuen Telebistako akademiak. •



Lehenengo orduan, jende gutxi hurbildu zen arren, eguerdi aldera herritarrek Merka2San Markos azoka bete zuten.



Denetarik zegoen San Markos Mankomunitateak antolatutako azoka honetan.



Azokan p arte hartu ezin zutenek gordailu salmenta sistema berriari esker, saldu ahal izan zituzten bere produktuak.



Haurrentzako jokoak, bono zozketak, poltsa banaketa... izan ziren informazio puntuan burutu ziren ekintzetako batzuk. Honetaz gain, konposta egiteko ontzia ere ikusgai zegoen azoka berezi honetan.

## Azoka arrakastatsua

Nahiz eta euriaren mehatxua izan eta tenperatura jaitsiera nabaria izan, herritar eta kanpotar ugari bildu zen atzo Merka2SanMarkos bigarren eskuko azokan.

Giro onean, goizeko 10:00etatik 14:00etara egoera onean zeuden produktu ugari, arropa, altzairuak, liburuak edo musika diskoak, salgai egon ziren Dorre parkean jarritako hamalau karpetan.

Gobernuz Kanpoko erakundeak eta elkarteek dirua bildu zuten produktuen berre-

rabilerara sustatzen duen azoka honi esker.

Herritarrek ere aukera izan zuten etxeko ganbaran zeuzkatzen gauzak atera eta saltzeko, baita bertan egon ezin zirenek ere gordailu salmenta sistemari esker.

Honetaz gain, informazioa puntuan, poltsa berrerabilgarri bat ematen zuten, merkatuan erabiltzeko bonoen zozketak, haurrentzako jokoak eta tailerak eta noski, birziklapena eta konpostari buruzko informazioa ematen zuten. •

## SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471  
LASARTE-ORIA  
www.sugate.net

# Kubako kantariak ostiralean Zabaletan

■ Yannaysa Prieto eta Maygred Bourricaudy, *Jade bikotea*, 22:00etan hasita ■ Irrien lagunak Pirritx eta Porrotx-en diskoan parte hartu dute ■ Urritik kantuan ari dira Euskal Herri osoan

**Yannaysa Prieto eta Maygred Bourricaudy Kubako abeslariak Zabaleta auzoan kantatuko dute ostiral gauean 22:00etan hasita, herriko bertsolariekin batera. Pirritx, Porrotx eta MariMotots-ek gonbidatuta heldu ziren urriaren 6an Euskal Herrira "irriaren lagunak" hauen azken diskoaren grabaketan parte hartzeko. Bi abesti grabatu zituzten eta ondoren herriz herri dabiltza urte amaierara bitartean.**

JON ALTUNA

**D**uo *Jade* izeneko bikotea osatzen dute Yannaysa Prieto abeslariak eta Maygred Bourricaudy gitarra joleak. Lehen aldiz etorri dira Euskal Herrira eta oso pozik dabiltza batera eta bestera. 20-25 egunetarako zetozen, baina bisita luzatu egin dute, eta beste bi hilabete geratuko dira Euskal Herrian, abenduaren 31ra arte. Tarte horretan, 20 emanalditik gora egingo dituzte toki ezberdinetan euren musika ezagutarazteko.

Lasarte-Oriako pailazoak eta Kubako abeslariak urtarrilean ezagutu ziren La Habana. Hiriburuko auzo batean pailazoak eman zuten emanaldian hartu zuten parte eta gerora diskoan parte hartzeko eskaintza egin zieten. Bi abesti grabatu dituzte, bata euskaraz, "Kukurrukuku", eta bestea, gaztelerez, "Sijucito Platanero". Euskarazko testu ezberdinen artean "Kukurrukuku" aukeratu eta musika jarri diote kubatarrek. Gero, grabaketarako heldu zirenean pentsatu zuten bigarren bat ere grabatzea. "Sijucito Platanero", Kubako txori bati buruzko abestia da, son-a, bertako doinu herrikoietan herrikoiena, Kubako zapore eta ezauzgarri berezkoenak dituena.

Pirritx eta Porrotxen disko-rako grabaketa ia maleta desegin baino lehen egin zuten, 6an iritsi eta 7an sartu baitziren Garateko estudioetan. Ero-

soa izan zen grabaketa, bi egunetan lanak bukatuak zituzten eta bisita aprobetxatuz, zortzi abestirekin KD bat grabatu zuten Kaki Arkarazo teknikariarekin: zazpi kantu beraienak eta Kubako abesti tradizional bat. Kontzertuetan salgai jarri dituzte eta pozik daude, ikusle askok eraman du eta euren diskoa etxera.

## Herriz herri kantari

Hiru hilabeteetan guztira hogeikantalditik gora egingo dituzte. "Bidaia esker, gure musika ezagutarazteko aukera izan dugu. Zaldibia, Usurbil eta Hernanitik hasi eta pixkanaka toki eta emanaldi ezberdinak etorri dira. Jada ia Euskal Herri erdia pasa dugu" kontatu digu Maigred-ek. Besteak beste, Zuberoan ere egon dira, Maulen, aurreko asteburuan.

"Garrantzia ematen diogu gure musika ezagutarazteari eta ezin ezetik esan. Taberna, zaharretxe, gastronomia elkarren artean "Kukurrukuku" aukeratu eta musika jarri diote kubatarrek. Gero, grabaketarako heldu zirenean pentsatu zuten bigarren bat ere grabatzea. "Sijucito Platanero", Kubako txori bati buruzko abestia da, son-a, bertako doinu herrikoietan herrikoiena, Kubako zapore eta ezauzgarri berezkoenak dituena. Pirritx eta Porrotxen disko-rako grabaketa ia maleta desegin baino lehen egin zuten, 6an iritsi eta 7an sartu baitziren Garateko estudioetan. Ero-



Maygred Bourricaudy eta Yannaysa Prieto, Kubako Jade bikotea, Xirimiri elkartearen kantatzen zuten.

tradizionala alegia". Hori nabaritu dute, euren abestiak zein hango abesti herrikoiak kantatu dituztenean.

## Musika tradizionala

Kantaldietan Kubako abesti ezagunak jo ohi dituzte beraienekin batera. Bikotearen ustez, "gazteen talde gehienek sus-traiak gutxietsi eta beste era bateko musika egiten dute, azkarragoa, elektronikoa,... Guk ez dugu arazorik atzera begiratzeko, kontrakoa, betidanik musika tradizionala landu dugu. Baina nahasketa da, esperimentatzea gustuko dugu eta ondo sentiarazten gaituena jotzea ere bai".

Euren musika euskal ikusleengana iritsi dela sentitu dute, "kontzertua ematen ari ginela era batera edo bestera ikusleak gurekin bat egin dutela sentitu dugu". Kantautoreak eta ezegunak izanik, toki batzuetan beste batzuetan baino hobeto funtzionatu du.

Xirimiri elkartearen azaroaren 6an burutu zen bertso afarian izan ziren herritarrek ziurtatu dutenez bi abeslari handi dira, kalitate handikoak eta ahots zoragarria dute. Egun hartan Jokin Uranga, Unai Muñoa, Iñaki Gurrutxaga eta Maialen Arzallus bertsolarien saioan zenbait abesti kantatu zituzten, eta Yannaysa Prietok, animatu eta bertso batzuk inprobisatu zituen, gaztelerez noski. Polita izan zen bertsolarien eta abeslarien jarduna elkarrekin. Egun hartako saioan oso gustura egon zirela esan digu, Yannaysa berak "bertsoak euskaraz baziren ere, ondo sentitu ginen". Bazuten Euskal Herriko bertsolarien berri, (Unai Muñoa Kuban ezagutu zuten), hango "repentisten" antzekoak dira. Kantatzen dituzten "son" horiekin inprobisatu daitekeela jakinarazi zigun Yannaisak eta batzutan berak egiten duela. Xirimirin animatu zen, "bertso-tan" aritu zen.

Euskal Herria, euskaldunak, paisajeak, jatekoak eta bertako ohiturak asko gustatu zaizkie. Pentsatzen ari dira elkarte gastronomiko bat irekiko dutela La Habana. Jatekoari dagokionez, Holguinen jaio eta Habanan bizi den Maigred-ek esan digu gehiena harritu duena txuleta izan dela: "tamaina eta nonahi zein ona dagoen". Habanako den Yannaisak hemen jende oso alai eta jatorria aurkitu dutela dio: "asko lagundu digute, toki batera eta bestera ibili gara beraiei esker".

Beraz, Zabaletan Jade bikotearen abestiez gozatzeko eta beraien diskoak erosteko aukera izango da ostiralean. Zabaleta-ko auzo elkartearen antolatutako duen kantaldia, 22:00ak aldera hasiko da. Aurretik 20:00etan hitzaldia eskainiko du Iñaki Petxarromanek, eta ondoren burutuko da afari herrikoia. Auzo elkarteak edaria eta kafea jarriko ditu eta jatekoa norberak eraman beharko du. •

# ANAIK

## JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386

# Irani buruzko diaporamak eman dio hasiera Zabaletako Aste kulturalari

■ Zabaletako Auzo-Elkartearen Aste kulturaleko ekintzak urte osora zabalduko dira

Zabaleta Auzo-Elkartek Aste kulturala antolatu du aurten ere eta ostiralean eman zio hasiera.

Azken urteetan ez bezala, aste berdinean emanaldi guztiak egin ordez, urtean zehar egingo dituela jakin arazi du elkartek.

## Lehenengo emanaldia

Ostirala honetan, Aste kulturalari hasiera emanez, udaran Iranera egindako bidaiara azaltzera hurbildu ziren Oihana eta Olatz Zabaleta auzora.

*Iran pil-pilean eta gu... saltsan* diaporamari, Euskal Herriko 7 emakumeek Irango hauteskundeak eta geroko egoera nahasian zergatik murgildu ziren azaldu zuten.

“Guk munduan dagoen Estatu islamiar bakarrera joateko asmoa genuen eta bertan, emakume elkarteekin hitz egin hango emakumeen egoeraren

berri izateko,” adierazi zuen Olatzek.

“Baina hauteskundeak iritsi eta Iranen sartzeko baimena lortzea zail izan zen,” gaineratu.

Hala ere, lortu zuten Iranera joatea eta “hango herritarrei arraroa egiten zitzairen 7 emakume bakarrik joatea,” aipatu zuen Olatzek.

Honetaz gain, Iraneko historia politikoa labur azaldu zuten, baita demografia datu eta emakumei buruzko datu batzuk ere.

## Aniztasun handia

Olatz eta Oihanak behin eta berriro azpimarratu zuten, Iranen zegoen aniztasunak eta kontrasteak txundituta utzi zituela, bai erlijio, baita arraza ezberdinengatik ere.

Irango hiriburuan esate baterako, iparraldekoa aberatsa eta erlijioan sinetsuen gutxiakoa den bitartean, hegoaldekoa txiroa da



Zabaletako Aste kulturala Iran Estatu islamiarraren aniztasuna eta kontrastea azaldu zuen diaporamarekin hasi zen ostiralean.

eta erlijiosoagoa.

Era berean, bidaiaren hasieran panelu iluna zeramaten buruan eta hilerik ikusi gabe, baina “bertako neska gazteak ikusi, lasaitu eta koloreetako

paneluak jantzi genituen bukaeran.” azaldu zuten

Ostean, bidaiaren ibilbideari buruz mintzo ziren. Basamortu ondoan, 50º izan zituztela, nomadak ezagutzera joan zire-

la, iparraldean kurdoekin eta Kaspio itsasoko hondartzak ikustea joan zirela, etab.

Emakumearen egoeraz ere mintzo ziren eta, entzuleen galderak ere erantzun zituzten. •



## In.fussionk!!! taldearen nahasketek bukaera eman zieten aurtengo Gazte kontzertuei

*Gazte kontzertuak* ekimeneko aurtengo azken emanaldi burutu zen ostiralean Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

*In.fussionk!!!* proiektua entzuteko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren herritarrek.

Marek Barath musikari, Dj eta ekoizleak eta bere lagunek osatzen duten taldeak estilo ezberdinak, indie edo country-tik musika elektronikaraino,

uztatu zituzten saioan. Estilok ez ezik, abestiak ere nahasi zituzten.

## Atsedendaldia

Gabonetako oporretan atsedena hartu eta indarrak berri- tuz ostean, urtarrilaren 22an bueltatuko dira *Gazte kontzertuak* kafetegira.

Eta berrikuntza nagusi bat ere aurkeztuko dute emanaldiek, bakarrikzeta eta kafe antzerkiak ere egingo direla. •

## Euskal egileen musika Brigitarren komentuan

Herritar ugari gerturatu zen ostiralean, Ama Brigitarren komentura *Musiké Tekne* hari laukotearen kontzertua entzuteko.

Danak Kideek antolatzen dituen V. Musika Topaketetako bigarren emanaldi honetan, Jesus Guridi eta Juan Crisostomo de Arriaga euskal egileek bereziki hari laukote batentzat konposatutako, *Cuarteto nº2* eta *Cuarteto nº1*,

eskaini zituen *Musiké Tekne* hari laukoteak.

Nahiz eta *Musiké Tekne* hari laukotea sorkunde berriko ganbera musika proiektua den, musikarien esperientzia eta trebetasuna nabaria izan zen Brigitarretako emanaldian.

Saioaren bukaeran, laukoteko kideek, Izaskun Etxebes- te eta Tomas Ruti herritarra biolinetan, Maider López bio-

lan eta Nuria Nieto txeloan, herritarren txalo zaparrada handia jaso zuten, haien esker onaren seinale.

## Hurrengo kontzertuak

Orain arte, kontzertuak Zarautz, Legazpi eta Andoainen eskaini ditu *Musiké Tekne* hari laukoteak, eta hurrengo urterako data dexeente dituzte Euskadiko herrietan zehar jotzeko. •



Herritar ugari bildu ziren Brigitarren komentuan *Musiké Tekne* hari laukotearen kontzertua entzuteko.

## Egunero

### Erakusketa

SOKA ARTEAN, argazki erakusketa. Zirikari artista gasteiztarren argazkiak. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

### Erakusketa

DEFENSORES, Sofia Morenaren erakusketa. Amnistia Internazionalaren erakundeak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara

### Erakusketa

NICU BARB ETA DANIELE MARELEN Adierazpen konposatu margolanen erakusketa. Abenduaren 19ra arte egongo da ikusgai Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara.

## Asteazkena, 16

### Hitzaldia

ZIGORTZEA BEHARREZKOAK AL DA HEZTEKO? izenburuko hitzaldia eskainiko du Enkarni Gomezek, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Villa Mirentxun, 18:00etan.



MANUEL LEKUONA · LASARTE-ORIA  
EGUBERRIETARAKO  
SUKALDARITZA ERRAZA  
COCINA FACIL PARA LA VEJERIDAD

## Sukaldaritza errazeko jardunaldiak

Lasarte-Oriako Udaleko Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun departamentuak antolatuta, aurten ere Eguberrietako sukaldaritza errazeko jardunaldiak ospatuko dira

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA  
HILAREN 14TIK 17RA  
KULTURETXEAN, 19:00ETAN

### Kontzertua

GABONETAKO KONTZERTUA eskainiko du, urtero bezala Udala Musika eskolak. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

## Osteguna, 17

### Zinea

CUSCUS filma Okendo Zinema Taldeak antolatzen duen Osteguneko zinema emanaldietan. Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30etan.

## Ostirala, 18

### Antzerkia

LAS VACACIONES DE JOSEFA antzezlan eskainiko da Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Antzerkia bultzatuz programaren baitan. Sarrera: 12 euro. Kulturetxean, 20:00etan eta 22:00etan. GAZTELANIAZ.

### Hitzaldia

IÑAKI PETXARROMANEK *Kubari buruzko lau zertzelada* hitzaldia eskainiko du. Zabaleta auzoan, 20:00etan, EUSKARAZ.

### Kantaldia

KUBAKO DUO JADEREN emanaldia.

dia. Aurretik, 21:00ean norberak eramanda, afari herrikoia egingo da. Edaria eta kafea auzo-elkartearen kontu. Zabaleta auzoan, 22:00etan.

### Antzerkia

KLOWNTUZ! MENDIA! antzezlanekin Mari Gorritxu pailazoren gora beherak kontatuko dizkigu Kili-Kolo taldeak. Jalgin, 22:30ean, EUSKARAZ

## Larunbata, 19

### Kontzertua

VIII. MULTIMUSIKALAREN edizioa izango da Andatza plazan eta hainbat tabernetan. Kontzertuetz gain, azoka, bazkaria... e.a. izango dira arratsalde eta gauan zehar.


### Kontzertua

ALBOKA ETA ALBOKA TXIKI abesbatzek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute. Kulturetxean, 20:30ean, BIETARA.

## Astelehena, 28

### Ipuin-kontalaria


KORUKO ZURUTZA ipuin-kontalariaren Ipuin bat irakurriko dugu? saioa. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



## Esazu irrati programazioa

### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.  
Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Espetxeratutzat produktu bilketa

Eguberri hauek gertutasuna sentiarazi nahi die Lasarte-Oriako Espetxe Pastoraltzak espexeratu eta haien familiei. Horretarako, produktu bilketa antolatu dute hurrengo astelehen eta asteartean (hilaren 14 eta 15), San Pedro Parrokiko etxean 18:00etatik 19:00etara. Produktuak barruko arropa berria, galtzerdiak, tabako gorria, metxeroak, hortzetako pasta eta eskuilak, gutun azal eta zigiluak, dutxarako xaboia, desodorante-barra azazkal-moztekoak, pilak, turroi biguna edo dutxarako txankletak izan daitezke.

### Euskal Inauterien konpartsa

Konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landa-berri BHko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

### EHNarekin arazoak izan badituzu

EHNarekin arazorik izan

badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektronikoa honetan [lasarte@baieuskalherriari.org](mailto:lasarte@baieuskalherriari.org). Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

### Multimusikalari laguntza

Multimusikalari laguntzeko antolatzaileek bonoak jarri dituzte salgai tabernetan. Kuadrillentzako 50 eurotakoak eta banakoa 20koa. Errifak ere aterako dituzte, herriko jatetxe batean bi pertsonentzako afaria zozketatuz. Honetaz gain kontu korronte honetan ere dirua sartu dezake nahi duenak: 2101 0048 20 01255 73386. Animatu zaitezte Multimusikala aurrera ateratzen!

### XVII. Jaiotzen Lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak Jaiotzen Lehiaketako XVII. edizioan parte hartu nahi duenak, jaiotza abenduaren 19an eta 20an, Guraso Elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan utzi behar du, arratsaldeko 18:00etatik

20:00ak bitartean.

Gogoratu, banaka nahiz taldeka hartu daitezke; egingo dako jaiotzaz aparte, gutunazal batean egileen izenak sartu behar dira eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzi behar da; jaiotzak, gehienez, 80x60 zmtako dimentsioak izan behar ditu eta ez da onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere.

### Haurren bi zapata agertu dira

Bata urdina da eta Hipodromo etorbidean topatu zuten orain egun gutxi. 19 zenbakikoa da eta Bubble bobble markakoa. Berri-berria dago. Bestea berriz, Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, azaldu zen Jalgi kafe-antzokian. Marroia da eta 3-6 hilabeteko haurrentzako da. Zapatak Ttakuneko bulegoan jaso daitezke.

### Ordulari bat galdu da

Orain egun gutxi emakumezkoen ordulari bat galdu zen herriko erdigunean. Korrea

beltza du eta borobila da. Topatu duenak mesedez, deitu dezala telefono honetara: 943 362632.

### Olentzeroko entsaioak

Olentzeroren etorrera dela-eta, Lasarte-Oriako inguruko base-rietan barrena kantari atara nahi duenak aurten ere aukera paregabea izango du Erketz EDTekin. Horretarako bi entsaio antolatu dituzte, bata gaur, abenduaren 11n eta bestea hurrengo ostiralean, 18an. Entsaioak Zumaburu eskolan izango dira 20:00etan.

### Margo eskolarik ez gabonetan

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marraketa eta margo eskolak jakinarazi nahi du, abenduaren 25 eta 2an eta urtarrilaren 1, 2 eta 6an ez dela klaserik egongo kulturetxea itxita dagoelako.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)  
[txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com)

## Egunkaria libre!

### Egunkariaren alde elkarretaratzea Lasarte-Orian

**Egunkariari atxiki-mendua adierazteko**  
**ARGAZKI KOLEKTIBOA GAUR, astelehena 14, 19:30ean Sagardotegi kalean**

**Azaldu zaitez!**

**Hilaren 19ko Bilboko manifestaziora autobusa antolatuko du Ttakunek**

[www.egunkaria.info](http://www.egunkaria.info)

Munduan libre bizi ahal izateko  
Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko

# Egunkaria epaitzearen aurkako argazkia

Lasarte-Oriako Egunkariaren aldeko Herri batzordeak deialdia egin du gaur, arratseko 19:30ean Sagardotegi kalean bost auzipetuen aldeko argazki kolektiboa ateratzeko

Madrileko Audentzia Nazionalan "Egunkaria"ren aurka epaiketa bihar abenduaren 15ean hasiko dela eta, epaiketa hori salatzeko eta auzipetuei babesa emateko gaur arratsaldeko 19:30ean Sagardotegi kalean ahalik eta herri-tar gehien biltzeko deia luzatu du Egunkariaren aldeko Lasarte-Oriako Herri batzordeak. Elkarretaratzean argazki bat aterako da oro har herria epaiketa honen kontra dagoe-lari argi eta garbi adierazteko.

Duela 19 urte, abenduaren 6an sortu zen Egunkaria, eguneroko prentsa euskaraz, eta duela sei urte, 2003ko otsailaren 20an itxi zuten Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz euskara hutsez argitaratzen zen egunkari bakarra zena. Sei urte ondoren, bihar hasiko da Egunkariko zuzendaritzako bost kideren aurkako epaiketa

Audentzia Nazionalan: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Urija, Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga auzipetuei, ETAko kide izatea egotzi diete, eta fiskalak, defentsak bezala, auzia ixteko eskatu badu ere, "Dignidad y Justicia" eta AVT elkartearen salaketa ontzat hartu eta 14 urteko espetxe zigor eskaerari aurre egin beharko diote epaituek abendua eta urtarrilaren burutuko den epaiketan.


2003ko otsailaren 20an, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz, Guardia Zibilak Egunkaria euskarazko egunkariaren egoitzak itxi eta hamar lagun atxilotu zituen: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Urija, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia (2006an hil zen), eta Inma Gomila.



Uriak, Oleagak, Otamendik, Alegriak eta Auzmendik torturak eta tratu txarrak jaso zituztela salatu zuten epailearen aurrean. Seiek jarri zuten salaketa, baina ez du batek ere aurrera egin. Aldiz, fiskalaren beraren iritziaren aurka, Entzutegi Nazionalak epaiketara deitu ditu atxilotuetatik

bost. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Urija, Txema Auzmendi eta Martxelo Otamendirentzat 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa eskatzen dute bihar hasiko den epaiketan eta Xabier Oleagarentzat, aldiz, 12 urteko espetxealdia eta 14 urteko inhabilitazioa (14 urte, AVTren eskaeran).

Egunkaria ixtea bidegabekeria izan zela eta epaiketa bera egiteak zentzurik ez duela uste dutenak deitzen ditu Egunkariaren aldeko herri batzordeak eraso hori salatu eta gaur arratsaldean Sagardotegi kalean "Egunkaria libre" lelopean egingo den ekintzan parte hartu dezaten. •



**Usurbilgo OIARDO Kiroldegian**  
**2009ko abenduaren 19an, bi saio:**  
**16:00etan eta 18:30ean**

**Pirritx, Porrotx**  
**eta Mari Motots**  
**"Irrien lagunak"**

**Ian berriaren aurkezpen emanaldia**

**Sarrerak:** aurretik 5 euro / egun berean 6 euro  
 (12 hilabete arteko haurrak doan)  
**Salgai:** Orio (Arkaitz)  
 Lasarte-Oria (Artizar)  
 Usurbil (Bordatxo, Mahuka eta kiroldegia)  
**Antolatzailea:** ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.